

Mujika'ren iztegi berria

Tierra Vasca, 118. zk., 1966-04: 6.

Orain ari zaigu eskuetara eltzen aspaldi itxaroten egon geran Plazido Mujika jesuitara iztegia.

Iztegi aundia, milla ta bederatzi eun orri ba ditu ta; iztegi mamitsua, gure izkuntzaren aragia oso-osea or dator eta; ta iztegi argia, oso ondo antolatua dago ta.

Bañan iztegi beraren argipenak gaurkoz alde batera utzi ta liburu onen esan-nai bat aitatu nai nuke gaur.

Plazido Mujika apaiz jaunak dionez, bere egundoko lan au *Eziña Ekiñaz Egiña* bezela izan da.

Ta ez dio gezurrik, *eziña egiña* biurtzen baita maiz gizonik lanean ba da.

Orrelako lan luze ta neketsuak *eziña* dirudi geldik dagoanari ta mugitzeko gogo aundirik ez daukanari *Eziña* mamu izugarria da, basa-pizti bildurgarria. Orrek bereizten ditu gizonak: batzuek bildurtu ta uxatzen ditu, ta besteak eziñerako bidean ibiltzeko prestatu ta gogortu oi ditu. Gure Aita Mujika'k 1929an Colombia'ko mendietan ziar zebillela "Zeruko Argia"ren zati bat lurrean arkitu ta bere mingain eta bere biotzeko izkuntzari iztegi aundi ta eder bat ezkeintzeko bearra burura etorri zitzaionean, ez zan izutu, ez an uxatu. Ain urruti (Ameriketa'ko mendi iskutu batean), bere orduko egin bearretatik era ain urruti (indioei Kristo erakusten), ez zeukan gai ura utzi besterik; eta kito; errexa baizan; bañan orren orde z egin-bear orren arri aztun ura bizkarrera jaso ta orain arte, ogei ta amasei urtean, bere jo-mugara eldu arte, eutsi dio gizonak.

Beraz, Aita Mujika'k *eziña menderatu* du.

Nola ordea?

Ez gabean izarreri begira egonda, edo arratsetan telebistan zer ikusi exerita geldituta, edo lan egiten ari diranak maxiatzen dagoala, ez; ekiñaz baizik.

Gizon ospetsu onek bazkal-ondoko loak eta aparti-ondoko berriketak, eta batzuetan aparti osoa eta loak berak ere, alde batera utzi, bai, ta bere izkuntzari orrenbeste bear zuan iztegi bat eskeiñi dio.

Ta ala, *eziña* ekiñaz egin du Plazido Mujika apaiz josulagun jator onek; eta omen daukagu esku artean bizi-bizirik dagoan iztegi eder au, gure izkuntza bizitzeko ta aberasteko ainbat lan eder egingo duan erreminta trebe, gartsu ta aberats au.

Bear dan neurrian eskertuko ote degu gure anaia?

Ez dakit. Askotan esker txarrekoak izaten ere ba dakigu guk, gero! Gaixtakariz ez ba da ere, utzikeriz eta alperkeriz bai beintzat.

Euskaldun guziok bear degu iztegi au etxean; ez gure liburu-apalak apaintzeko bakarrik; gure izkuntza aberastu ta gaitzeko erreminta bezela baizik.

Eta bukatzeko, Aita Mujika'k bere iztegiari ezarri dizkion itzak gure euskerari ere egokitu genezake, ta egi-egitaz gañera:

Euskera berpiztu ta sendotu nai ba degu, berpizte lan au *ekiñaz egiña* izan bearko du: ekiñaz; goitik bera, bide guzietatik buruz eta biotzez joaz.

Aita Placido Mujika'k bere lanari ekin eta jarrai zion bezela.

Bejondeizula Aita Mujika, ta eskerriasko.